

3. GAIA: HAUR HEZKUNTZAKO CURRICULUMA. TRATAERA EDUKIEN



34. irudia: nire gelako lagunak, Jon 4 urte






3. GAIA: HAUR HEZKUNTZAKO CURRICULUMA. EDUKIEN TRATAERA.

3.1. SARRERA. ZER DA CURRICULUMA?

Batzuen esanetan, Curriculumuma edukien programa egituratua besterik ez da; beste batzuen ustez, berriz, ikasleak eskolaren menpean bizi dituen hezkuntza esperientzia guztien multzoa da. Edonola ere, curriculumaren aplikazioaren arduradun zuzenak irakasleak dira, haiek baitira ikasgelan curriculumuma sortu eta antolatu behar dutenak. Planifikazioaren helburua honako hau da: hezkuntza-sistemak ikasleei eskaintzen dien kultura-sistemak zein izan behar duen aukeratzea. Hezkuntza Administrazioak eskaintzen digun Curriculum Diseinuak testu malgua da, hainbat asmo betetzeko sortua baita.

Curriculumak hiru zehaztapan maila ditu. Lehenengoa, testu honetan ikusten duguna eta Administrazioak emandakoa (Oinarrizko Curriculum Proiektua). Beste biak, bigarrena eta hirugarrena, ikastetxe bakoitzari dagokio osatzea: Ikastetxearen Curriculum Proiektua eta Ziklo eta Ikasgelaren Curriculum Programazioa (35. irudia). Era horretara, ikastetxe bakoitzak bere testuinguruaren ezaugarrien arabera egokituko du curriculumuma, bere proposamena osatuz. Testu honek LOGSE delako legearen oinarria hartu du abiapuntu, haur-hezkuntza etapan orain arte izan den lehenengo planifikazio eta antolakuntza serioa izan baita (gaur egun 2006. urtean, nahiz eta administraritzetan mugimendua egon, ez baita beste bat martxan jarri). Ondoren, beste lege batzuen bitartez, gutxieneko edukiak alda daitezke, baina funtsezkoa ez da aldatuko.




35. irudia: Haur Hezkuntzako curriculumaren zehaztaperen mailak.

Aurreko laukian ikusten dugu zein diren zehaztaperen maila horiek; dokumentu batzuk ereduak dira (1. mailakoak) eta besteak irakasle taldeak osatuko ditu.

3.2. HAUR HEZKUNTZARAKO CURRICULUMARI BURUZKO ARGIBIDE BATZUK.

Eusko Jaurlaritzako administrazioak Curriculum Diseinu bat lantzen du etapa bakoitzerako: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa. Testu honetan Haur hezkuntzako curriculumean dauden edukiak aztertuko dira. (36. irudia)



36. Irudia: Haur Hezkuntzako curriculumua.

Haur Hezkuntzarako Oinarrizko Curriculum Diseinuak honako elementu hauek ditu:

- A. Etapako orientabide orokorrak: orientabide didaktikoak eta ebaluaziorakoak
- B. Etapako helburu orokorrak
- C. Curriculum-arloak, esperientzia-eremuak edo ezagutza-eremuak.
- D. Arlo bakoitzaren helburu orokorrak
- E.** Eduki multzoak (36. irudia)

A. Etapako orientazio orokorrak: orientabide didaktikoak dira, eta horien helburua zera da: irakasleei ikaskuntza eta ebaluazio jarduerak diseinatzeko irizpideak eskaintzea, baina jarduera zehatzak proposatu gabe. Hezkuntza-sistemako etapa horietako bakoitza ziklotan egituratzen da. Era horretara, Haur Hezkuntza bi ziklotan antolatzen da: 0-3 adin tartea eta 3-6 adin tartea.

B. Etapako helburu orokorrak: haurrak Haur Hezkuntza amaitzean garatu behar dituen gaitasunak azpimarratzen dira. Gaitasun horien bilakaera proiektu komun baten arabera burutu behar da, eta ez banan-banan.

C. Curriculum-arloak edo esperientzia-eremuak, gehiago dagozkie haurrek burutuko dituzten esperientzia eta jarduerari, helduak helarazi behar dizkien informazio eta ezagutzei baino.




Edukiak arlotan antolatzeak helburuak sistematizatzeko aukera ematen du. Jarduerak ez dira arlo horien arabera burutu behar, jarduerak globalizatuak baitira. Esperientzia-eremuak honako hauek dira:

- Identitate eta autonomia Pertsonala. (C.1)
- Ingurune Fisikoaren eta Gizarte Ingurunearen Ezagutza. (C.2)
- Komunikazioa eta Irudikapena (C.3)

D. Arlo bakoitzaren helburu orokorrak: esperientzia arlo bakoitzaren barruan (C1., C.2., eta C.3.), hainbat helburu agertuko dira. Lehenengoek pertsonaren garapena eta autonomia bilatzen dute (C.1.); bigarren arloan, inguru baten barruan konfiantza izatea bilatzen dute; eta, hirugarren arloan (C.3.), garapen soziala bilatzen da, eta umeen arteko baliabide komunikatiboak garatzea.

E. Eduki multzoak aldatu egiten dira esperientzia-eremu batetik bestera, baina lotura dute helburu orokorrekin. (37. irudian aipatzen dira eta 3.4. puntuan garatzen dira)

Haur Hezkuntzako etapak ezaugarri bereziak dituzenez, haurarentzat, bi unitate dira garrantzitsuak, haurra bera batetik (identitatea lortzeko), eta bestetik, bere ingurua (inguru hori fisikoa eta soziala izango da). Era horretara, 1. esperientzia eremuaren bitartez, norberak bere gorputza, bere identitatea, ezagutzen du, bere ahalmenak eta mugak ikusiz eta onartuz; Norberaren identitatea hobetzeko honako hauek landuko dira: gaitasun motoreak (4.gaia), psikomotrizitatea (mugimenduarekin esperientziazioa, 5. gaia), edo hainbat metodologia jolasak, (6. gaia), zirkuituak, ipuin motoreak, edo araketa espresiboa (7. gaia). Inguru fisikoarekin (C.2.), berriz, testuingurua ezagutuko du, eta baita bertan agertzen diren elementuak, espazioak, baldintzak, egoerak eta harremanak ere; Espazioa ezagutzeko eta espazioan mugitzen jakiteko gaitasun motoreak (4. gaia), psikomotrizitatea (5. gaia) eta jolasak (6 gaia) garatuko ditugu. Inguru sozialarekin (C.3.), inguruko pertsonekin harremanetan jartzen da eta hainbat hizkuntza barneratzen ditu. Hemen eduki adierazgarriak garrantzizko lekua dute (7. gaia) Eta horrela ikus dezakegu 38. irudian.



37. irudia: Haur Hezkuntzako esperientzi eremuak eta edukiak.

Eduki bakoitzaren barruan, gertakariak, kontzeptuak, printzipioak, trebetasunak, teknikak, estrategiak, balioak, arauak eta jarrerak aztertzen dira. Era horretara, hiru eduki mota agertzen dira:

- Gertakariei eta kontzeptuei dagozkien edukiak, ezagutza abstraktua da (kontzeptualak)
- Prozedurei dagozkien edukiak, trebetasunak, teknikak, abileziak eta estrategiak biltzen dira (prozedurazkoak)
- Jarrerari, balioei eta arauari dagozkien edukiak, portaera zuzen batzuk ahalbidetzen dute (jarrerazkoak)

3.3. NOLA DAGO ANTOLATUTA ESKOLA?

Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza-proposamena egin beharko du, planifikazio batean oinarri hartuta. Horretarako, bi dokumentu sortu beharko ditu: Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) eta Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP), eta biek izaera funtzionala eta malgua izan beharko dute. Abiapuntutzat, eskolaren testuingurua hartzen da. IHPk hezkuntza orientabideak, printzipio eta balio ideologikoak eta pedagogikoak hartzen ditu. Printzipio horiek, irakasle taldeak, ikasleek, gurasoek eta administrazioko langileek osatuko dituzte; beraz, ikastetxearen proiektu batek partaide guztien



konpromisoa jaso beharko du. Bertan agertuko dira, ikastetxearen nortasuna, lortu nahi diren helburuak eta antolamendua. IHPa dokumentu ideologikoa da.

Irakasle taldeak ICPa landuko du. Dokumentu tekniko bat da; dokumentu horretan, IHPa eta Administrazioak emandako irizpideak hartuko dira kontuan eta ikasgelan gertatuko denari buruzko lehenengo proposamen zehatza da. Bertan, edukiak aukeratu behar dira, globalizazioa eta diziplinartekotasuna kontuan hartuz. Edukiak zikloan zehar antolatu eta banatu behar dira, eta jarraitu beharreko estrategiak eta metodologiak argitu beharko dira. Irakasleen irizpide indibidualak errespetatu behar dira, adostasuna eta koherentzia galdu gabe betiere. Ikasleen ebaluaziorako irizpideak zehaztu behar dira, ikasteko prozedura egokiak aztertuz (umeak egiten dituen aurreratzeak balioetsi behar dira, eta gurasoen aurrean azaldu). Espazio eta denborari dagokion antolamendua agertuko da, eta baita ikasteko premia bereziak dituzten ikasleen ikaskuntza eta erritmoen tratamendu egokia ere. Ikasmaterialen, irakaskuntza baliabideen eta bitarteko didaktikoen proposamena eta aukeraketa zehaztuko dira, eta baita baliabide horiek erabiltzeko modua ere.



23. argazkia: Zer marraztuko dugu?

Irakasle taldea garrantzi handikoa da. Hauren eskolatzeprosesan zehar, ikasleek burutuko duten ikaskuntza zehaztea da Haur Hezkuntzako hezitzailearen funtzio garrantzitsuenetako bat, zuzenean bere esku egongo baitira. Haur Eskola bateko irakasleak, jarduerak antolatzeaz gain, espazioa antolatu behar du, haurrak motibatu eta haur bakoitzari ahal bezainbeste garatzeko aukera eman. Irakasle bakoitzak bere ikasleen nortasuna, ezaugarriak eta jarrerak kontuan



izan behar ditu, eta norberaren nortasuna, ezaugarriak eta jarrerak begiratu beharko ditu, bere eragina ahalik eta positiboena izan dadin (Lleixá, 2000). Guraso eta hezitzailearen lanak koordinatu egin behar dira, garrantzizko eredu bat eskaintzen baitute. Irakasle taldeak, aurretik aipatutako betebeharez gainera, beste hauek ere baditu: ikasleen gurasoekin bilerak egin, seme-alaben ikaskuntza-prozesua nola doan adierazteko; bizikidetzari irizpideak ezarri; ikasgela barruan, banakotasuna eta aniztasuna errespetatu; premia bereziak dituzten haurren tratamendua orientatu.

Haurrarekiko jarrera begirunezkoa eta konfiantzazkoa izango da, eta, ahal den neurrian, ongizateak ahalbidetzen duen jarrera afektiboak eta eskertzeak jasoko ditu umeak. Ikasle horien irakasleak (etapa guztietako irakasleak bezala), etengabe eguneratu beharko dituzte beren ezagutzak, bere gela ikertuz eta hobetuz, eta berrikuntzak jasotzeko prest egon beharko dute. Berez, hezitzaile guztien prestakuntza etengabeko prozesu dinamiko eta iraunkorra izango da.

3.4. CURRICULUMA ETA MUGIMENDUA

Aurreko eskemari jarraituz (37. irudia), Haur Hezkuntzako curriculum eta horren barruan mugimenduaren ikuspuntutik gehien interesatzen zaizkigun arloak azalduko ditugu.

A. Haur Hezkuntza etaparen orientazio orokorrak: Orientabide didaktikoak eta ebaluaziozkoak: Haur Hezkuntzako curriculumean agertzen diren orientazio didaktiko batzuk, mugimenduaren ikuspuntutik gehien interesatzen zaizkigunak, honako hauek dira:

- Ebaluazioan erantzun guztiak onartu behar dira.
- Harreman pertsonalak garrantzi handikoak dira, eta ahal den neurrian, sendotu egin behar dira, honako alderdi hauek finkatzeko:
 - norberaren irudia eraikitze
 - besteen irudia eraikitze
 - oreka pertsonalari eusteko
 - pertsonen arteko harremanak egonkortze
 - arauak onartzeko
- Mugimendua: ikaskuntzaren eta garapenaren ardatz bihurtuko da, ezagutza guztiak mugimenduaren bidez barneratuko baitira. Era horretara, interesgarria litzateke manipulazioak egitea, mugimenduzko jolasak egitea eta abestea, eta ingurunearekin esperimentatzea... norberaren ezagutza lortzeko.
- Pertsona eta objektuak harremanetan jarriz, esperientziak bultzatu behar dira irudi mentala sortu ahal izateko.



24. Argazkia: Zer? Inbidiatan? Zuk ere jolastu nahi?

B. Haur Hezkuntzaren helburu orokorrak:

- a) Norberaren gorputzaren oinarrizko funtzionamendua ezagutzea eta ulertzea:
 - a. beren buruaz eta beren nortasun sexualaz irudi positiboa osatu,
 - b. jarduteko eta gauzak adierazteko gaitasunak eta mugak balioetsi, eta
 - c. osasun eta ongizateko oinarrizko ohiturak ikasi.
- b) Gero eta modu autonomoagoan jokatzeko ohiko jardueretan, pixkanaka ziurtasun afektibo eta emozionala lortuz.
- c) Aurrea hartzeko gaitasunak, eta norbere buruan konfiantza izatea.
- d) Harreman sozialak gero eta eremu handiagoan finkatzea, besteei entzuteko jarrera hartuz eta norberaren interesak, ikuspegiak, ekarpenak besteenei egokitzen ikasiz.
- e) Helduekin eta ikaskideekin harremanak finkatzea, elkar onartuz, aniztasuna errespetatuz eta laguntza eta elkarlanerako jarrerak landuz.
- f) Ingurua behatzea eta jakin-minez eta arduraz aztertzea, bertan dauden elementuen ezaugarriak antzemanaz eta horien arteko erlazioak ikertuz.
- g) Inguruko kultura-adierazpenak ezagutzea, haiekiko errespetua, interesa eta partaidetza jarrerak landuz. Era berean, inguru hurbileko kultur adierazpenekiko interesa eta errespetua edukitzea.



- h) Errealitatearen alderdi askotarikoak bizi izan, ezagutu edo irudikatutakoak adieraztea, eta jokoak eta beste zenbait espresibidek eskaintzen dituzten posibilitate sinbolikoen bitartez azaltzea.
- i) Ahozko hizkuntza ohiko komunikazio-egoerei egokitzuz erabiltzea, ulertu eta ulertua izateko, ideiak, sentimenduak, esperientziak eta nahiak adierazteko, esanahien eraikuntzan aurrera egiteko, norberaren jokabidea arautzeko eta besteengan eragina izateko.
- j) Norberak eskura dituen baliabideen bidez adierazpen aukerak ugaltzea eta aberastea, eta bere adineko adierazpen artistikoak ezagutzea eta aintzakotzat hartzea.

C. Esperientzia-eremuak:

C.1. esperientzia-eremua: nortasuna eta autonomia pertsonala:

Norbera ezagutzea eta ingurunearekin duen harremana ezagutzea, bere gorputza ezagutzuz eta bere ahalmen eta mugak onartuz.

D. 1. Helburuak:

- Gorputzaren irudia finkatzea (posibilitateak eta mugak ezagutzuz)
- Mugimenduaren kontrolean aurrera egitea, jolas-jarduerak egiteko eta sentipenak eta sentimenduak adierazteko
- Objektuak manipulatzeko zehaztasuna lortzea
- Identitatearen eboluzioa: norberaren kontzeptua eraiki (autokontzeptua) eta norberaren irudi positiboa eraiki (autoestimua)
- Norberaren sentipen eta pertzepzioak identifikatzea eta besteei komunikatzea; besteena errespetatzea.
- Jarduerak: koordinazioak, mugimenduzko trebetasunak, jolas motorra.



25. argazkia: Zertan ari gara? Asmatuko duzu?

E.1. Eduki multzoak:

E.1.1. Lehenengo eduki multzoa: Gorputza eta norberaren nortasuna:

- *Jarrerazko edukiak:*
 - Nortasunaren eta mugimenduzko ahalmenak eta mugak onartzea
 - Jokaera afektiboen aurrean jarrera positiboa
 - Pertsonen arteko aldeak onartzea
- *Prozedurazko edukiak:*
 - Gorputzaren ezaugarriak eta gaitasunak, oro har eta atalez atal.
 - Gorputzaren bidez, sentipenak eta pertzepzioak
 - Sentimendu-bizipenak
 - Norberaren indibidualtasuna
- *Kontzeptuzko edukiak:*
 - Giza gorputza:
 - Gorputz zatiak
 - Gorputzaren ezaugarri bereizgarriak
 - Giza gorputzaren irudia
 - Gorputzaren sentipen eta pertzepzioak:
 - Interozeptiboak: norberaren beharrak



Esterozeptiboak: besteak eta inguruarekiko sentipenak eta pertzepzioak.

E.1.2. Bigarren eduki multzoa: Jolasa eta mugimendua.

- *Jarrerazko edukiak:*
 - mugimendu aukeren aurrean konfiantza eta autoestimua
 - ariketa fisikoa egiteko zaletasuna
 - mugimenduen zehaztasuna balioestea
 - jolas-arauak onartzea
 - besteei laguntzeko jarrera edukitzea
 - mugimenduzko adierazpen guztiak onartzea
- *Prozedurazko edukiak:*
 - Egoera ludikoetan, mugimenduzko aukerak eta mugak aztertzea
 - Mugimenduzko egoeren arabeko tonua
 - Mugimendu orokor eta atalkoaren kontrola eta koordinazioa
 - Manipulazioetan kontrola eta koordinazioa
 - Lateraltasuna ezartzea
 - Mugimendua ezagutza tresnatzat hartzea, nozio topologikoak, erritmikoak eta denborazkoak
- *Kontzeptuzko edukiak:*
 - Giza gorputza eta mugimendua:
 - . Sentipen eta pertzepzio propiozeptiboak: gihar-tonua, jarreraren kontrola, mugimenduen disoziazioa
 - . Lateralizazioa
 - . Espazio-denborazko orientazioa
 - Mugimenduzko oinarrizko trebetasunak eta koordinazioak:
 - . Ibili, lasterketak, jauziak eta jaurtiketak
 - . Koordinazio estatikoa eta dinamikoa, eta oreka.
 - Jolas tradizionalak

E.1.3. Hirugarren eduki multzoa: Autonomia eguneroko bizitzan (Mugimenduaren ikuspuntutik ez zaigu horrenbeste interesatzen)

E.1.4. Laugarren eduki multzoa: Osasuna eta ongizatea (Mugimenduaren ikuspuntutik ez zaigu horrenbeste interesatzen)



26. argazkia: Izan zaitez fina lanean....!

C.2. Bigarren esperientzia eremua: ingurune sozial eta fisikoaren ezaguera:

D.2. Helburuak:

Helburu gehiago daude, baina mugimenduaren ikuspuntutik ez zaizkigu horrenbeste interesatzen.

- Ingurunean dauden tradizioak eta ohiturak ezagutzea, eta bertan parte hartzea, kulturaren adierazpentzat hartuz.

E.2. Eduki multzoak:

E.2.1. Lehenengo eduki multzoa: Familia eta eskola.

E.2.2. Bigarren eduki multzoa: Ingurua eta gizarte bizitza. (Hau eta aurrekoa, ez ditugu garatuko mugimenduaren ikuspuntutik ez baitaizkigu horrenbeste interesatzen)

E.2.3. Inguru naturala: (interesatzen zaiguna)

- *Jarrerazko edukiak:*



- Kanpoan eta naturan egiten diren jarduerak atsegin izatea
- Inguru naturalean dauden arriskuen aurrean segurtasunez jardutea.
- *Prozedurazko edukiak:*
- *Kontzeptuzko edukiak:*

C.3. esperientzia eremua: komunikazioa eta errepresentazioa

D.3. Helburuak:

- Hainbat errepresentazio eta adierazpen forma erabiltzea edonolako egoerak, ekintzak, nahiak eta sentimenduak adierazteko.
- Hainbat errepresentazio eta adierazpen formaren teknikak eta oinarrizko baliabideak erabiltzea, horiek komunikatzeko eskaintzen dituzten aukerak zabaltzeko.

E.3. Eduki multzoak:

E.3.1. Lehenengo eduki multzoa: Ahozko mintzaira.

E.3.2. Bigarren eduki multzoa: Musika adierazpena.
(Hau eta aurrekoa, ez ditugu landuko, mugimenduaren ikuspuntutik ez baitzaizkigu horrenbeste interesatzen)

E.3.3. Hirugarren eduki multzoa: Gorputz adierazpena eta komunikazioa.

- *Jarrerazko edukiak:*
 - Gorputzaren bidez gauzak adierazteko nahia eta interesa piztea, jolas-dinamikaren ondoriozko errepresentazioetan parte hartzeko gogoia
 - Materiala bildu eta jasotzeko laguntza
 - Gorputz adierazpeneko jarduerak osatzeko eta originaltasuna lantzeko gogoia
 - Mugimenduzko jardueretan konfiantza izatea
 - Arauak errespetatzea: objektuak, denbora, espazioa, gainerakoak.
 - Antzerki-emanaldietan adi egotea eta gustukoak izatea
- *Prozedurazko edukiak*
 - Gorputz-adierazpeneko baliabideak lantzea (keinua, mugimendua, ahotsa...), bakarka zein taldean, sentimenduak aditzera emateko.
 - Espazio, objektu eta lagunei dagokienez, mugimenduzko aukerak ikertzea



- Mugimendua pertsonen arteko harremanak lantzeko
- Elkarkidetzarako mugimendu aukerak
- Espazioaren eta besteen arabera mugimendua egokitzea
- Objektuak erabiltzea gauzak adierazteko eta komunikatzeko
- Egoerak imitatzea
- Egoerak eta istorioak antzeztea (jolas sinbolikoa)
- Jarduerarako espazioak sortzea, objektuen bidez
- Helduekin elkarlanean aritzea
- *Kontzeptuzko edukiak*
 - Gorputzaren aukerak sentimenduak, emozioak eta beharrak adierazteko
 - Gorputzaren kontrola: jarduera, mugimendua, arnasketa, atsedena, lasaitzea.
 - Espazioko testuinguruak
 - Hitzezkoa ez den komunikazioa sortzeko moduak




27. argazkia: Ea ba... sorgin pare, zer erosi behar didazue?

E.3.4. Laugarren eduki multzoa: Plastika eta ikusmenezko adierazpena. (Ez dugu garatuko, mugimenduaren ikuspuntutik ez baitaigu horrenbeste interesatzen)



E.3.5. Bosgarren eduki multzoa: Matematikako mintzaira. (Ez dugu garatuko, mugimenduaren ikuspuntutik ez baitzaigu horrenbeste interesatzen)



38. Irudia: eduki multzoak Haur Hezkuntzan.

Esan dezakegu curriculumeko eduki multzoak harremanetan jartzen ditugula testu honetan agertzen diren gai batzuekin, baina, motrizitatean, bizitzan bezala, oso zaila da sailkapen on bat egitea, oso zaila da esatea non hasten den gauza bat eta non bukatzen den bestea. Hemen gure proposamenak agertzen dira, besterik, ez.

3.5. CURRICULUMA GARATZEKO PROPOSAMENAK:



Testu honetan zehar, behin baino gehiagotan praktikorako erreferentziak agertuko dira. Gaur egun Haur Hezkuntzan, mugimendua lantzeko metodologia ezagunena Psikomotrizitatea izan da, ezagunena eta zabalduena izan delako. Baina ez da mugimendua lantzeko posibilitate bakarra. Testu honetan, hainbat metodologia ekartzen saiatuko gara, eta, gero, ondorengo proposamenak azaltzen, teoriarekin batera; 4., 5. 6. eta 7. gaitan agertuko dira. Dena den, metodologia horietako batzuk dagoeneko aipatu ditugu:

3.5.1.Psikomotrizitatea

Irakasleak ez du jarduera gidatzen, umearen jarduera motorra libre da, umeen afektua eta emozioa mugimenduaren bidez adierazten uzten baita. Jolas eta jarduera libreak ditugu oinarritzat..



28. argazkia: psikomotrizitatean 12-24 hilabete.

Espazioa antolatzen da zenbait helburu lortzeko (metodo bakoitzak modu batez antolatzen ditu bere espazioak eta materialak), eta umearen jarduera behatzen da esku-hartze pedagogikoa moldatuz joateko. Autore asko daude, eta bakoitzak planteatzen du praktika modu batez. Ezagunena Aucouturier-en metodoa izan da (5. gaia)

3.5.2.Ikaskuntza-inguruneak:

Psikomotrizitatean bezala, metodologia hori jarduera librean oinarritzen da, baina hor ez dute espero ikasleak aska ditzan edo azalera ditzan bere behar motorrak, irakasleak manipulatu du espazioa asmo finko batekin, oinarritzko trebetasun jakin batzuk lantzeko. Beraz, materiala gimnasioan muntatzen da helburu motor zehatz horiek lortzeko, eta horrekin batera oinarritzko trebetasunak eta gaitasun motorrak garatzeko. Umea goza dezala mugimenduarekin gozatzeko, besterik gabe. Emozioak egon, badaude, baina behatzaileak ez ditu kontuan hartzen, eta materiala ez da antolatzen horiek kaleratzeko. irakaslearen asmoa da aurreko metodoarekin dagoen



ezberdintasuna, hemen helburu motor zehatz batzuk landu nahi dira, eta hori bihurtzen da helburu nagusi. (5. gaia)



29: argazkia: Hemen, autobusean gaude... igo nahi?

3.5.3. Jolas sinbolikoa:

Umearen jarduera librea sortzen denean, berehala sortzen da jolas sinbolikoa, eta, psikomotrizitatean, txoko bat dago horretarako pentsatua. Jolas sinbolikoak helduaren bizimoduak eta ohiturak imitatzen ditu, edo hobeto esanda, bizitza errealaren jolas bihurtzen da. Jolas sinbolikoa banakakoa edo kooperatiboa izan daiteke (jolas sinbolikoa kooperatiboa 4-5 urterekin garatzen da, berez, orduan banatzen baitituzte "rol" sozialak beren artean). Jolas sinbolikoa ez da bakarrik sortzen psikomotrizitatea egiten ari diren bitartean, baina han bereziki onartuta dago (5. eta 6. gaian)



30. argazkia: Inoiz sokamanta-tiran jolastu duzu?

3.5.4. Jolas tradizionalak:

Jolas arautuak dira, askotan umeak asmatuak, baina irakaslearen bidez sortuak izan daitezke. normalean gidari bat egongo da, eta irakaslea edo jolasa sortu duen umea izango da hori. Itxiak izan ohi dira, arau batzuk daude eta bete behar dira. Ondo dago horietako jolas batzuk erabiltzea ez bakarrik mugimendua lantzeko, beste arlo batzuk lantzeko ere. Hala, umeak ordena uler dezake; gauza batzuk egiteko batek bestearen atzean joan behar duela, denok ezin dutelako batera egin, txandaren zain egon behar dela, eta abar... Sailkapen anitz daude jolasen inguruan, Haur-hezkuntzan, sentsorialak, lasterketakoak, jauzietakoak, eta erritmokoak izaten dira gehien erabiltzen diren jolasak. Baina jolas motoreak ez dira erabiltzen bakarrik trebetasun motoreak garatzeko, trebetasun matematikoak, trebetasun sozialak, hizkuntza-trebetasunak eta abar lantzeko erabil daitezke.

3.5.5. Ipuin motorrak:

Ipuin motorraren bidez, mugimenduzko proposamenak garatuko dira istorio baten barruan helburu motor bat betetzeko asmoz, istorioa gida bihurtzen da. Benetako helburua mugimenduarekin lotuta dago. Ipuin bat izan daiteke, eguneroko bizitzan suertatzen diren egoerak, errealitatearekin lotuta dauden istorioak edo fikzioko istorioak (bide batez, beste motatako helburuak garatu daitezke, hizkuntza-trebetasunak edo irudimena landuz). Gauza bera egin daiteke testuinguruarekin jolastuz: zirkuitu bat eratu, proposamen ezberdinak gauzatuz, hala, oinarrizko trebetasunak garatuko ditugu espazioko tresnak ipuin horretan sartuta, edo bestela gimnasioko elementuak ipuinaren barruan barneratuz. Ipuin motorra erabil daiteke sentsazio edo sentimenduak adierazteko, adierazpena eta motrizitatea



konbinatuz, ondorioz, bi eratako helburuak ipuinaren barruan sartzen dira.

3.5.6.Zirkuituak

Lan egiteko metodologiaren artean, tradizioaletako bat da hori, baina, gaur egun, oso gutxitan erabiltzen dira. Zirkuituak erabiltzen direnean, oinarriko trebetasunak konbinatzen dira. Zirkuituaren ordena markatu daiteke alde aurretik, edo, bestela, planteamendua irekia izan daiteke. (Pinguinoen uhartera ailegatzeko bide ezberdinak daude... ailegatzeko modu ezberdinak planteatu). Zirkuitua zera izan daiteke: bide zehatz bati jarraitzea nonbaitera ailegatzeko edo jarduera ezberdinak egitea txokoka antolatuta...



31. argazkia: Tunela pasa eta gero, joango gara....

3.5.7.Gorputz-adierazpenaren baliabideak

Hor, gorputzaren baliabide adierazgariak lantzen dira. Gorputz-eskema lantzeko eta hobeto ezagutzeko, gure gorputza eta haren mugimenduzko posibilitateak erabil daitezke. Edo, emozioak eta sentimenduak adierazteko, esperimentazioa bultzatuko da proposamen irekiak eginez. Haur Hezkuntzaren kasuan, proposamen horiek ez dira edonolakoak izango; irakaslea istorioan sartu behar da, umearen imajinazioa bultzatuz. Irakaslea dinamizatzaile bihurtzen da. Hitzeko eta ez hitzeko komunikazioa ere erabiliko da, eta baita sentimendu eta sententzioen adierazpena ere (hotza, bero, ikara, poza, tristura...)

3.5.8.Dramatizazioak:



Hitzezko eta ez hitzezko komunikazioan oinarrituta, baina, kasu horretan, komunikazioa trama baten barruan dago sartuta. Pertsonaiak banatzen dira, gertaera bat kontatzen dugu... Jolas sinboliko kolektiboa horren oinarria da, eta, askotan, errekurtso gisa aprobetxatu daiteke.



32. argazkia: motorrean ibili eta gero...



33. argazkia: ... hegazkinean.

3.5.9.Txokoka lan egitea

Jarduera motore bat baino gehiago gertatzen ari da batera, txoko bakoitzean, material ezberdina erabiltzen da. Malgutasuna ematea litzateke egokiena, jarduera horretan ume guztiek zerbait ekarri ahal izateko, halaber, ipuin edo istorio batekin egon daiteke harremanetan.

3.5.10.Jarduera txokoak eguneroko gela barruan:

Proposamen horrek helburu zehatz batzuei erantzungo die, eta helburu horien arabera taldekatuko da ikasgela. Banakako lan edo jarduerak ikasleen ezaugarri bereizgarriei egokitzeko aukera eskaintzen dute: haien lan-erritmoa errespetatu, lanaren emaitzei dagokienez, etengabe atzera-elikatzeak aukera eskaini eta haurren jarduera egindako lanaren motibazioak eragina izatea ahalbidetzen du. Haurrak zer aurrerapen egin duen ikus dezake egindako lanarekin alderatuz gero, eta aldi berean, hainbat irtenbide aurki ditzake lan hori bera ebazteko. Lanaren aukeraketa librea da jarduera honen bereizgarria. Haurrak ekiten dio jarduerari, ikaslearen orientabide, proposamen edo aginduen mende egon gabe, haurrak erabakitzen baitu zer, nor eta zerekin egingo duen. Jarduera horretan, ingurunea antolatzea da irakaslearen zeregina.

Talde-jardueran, taldeko guztiak aberasten dira, azpitaldeak, oro har, egonkorak izaten dira, eta antzeko informazio eta garapen mailak izango dituzte. Lan modu horren helburua taldeko desberdintasunak orekatzea da, irakasleak ikaskuntza komunak proposatuko ditu



guztientzat, eta lanerako eta bizikidetzarako gizarte moduak eskainiko ditu. Gainera, horren bidez, besteekin harreman onak izateko behar dituzten jarrerak ikas ditzakete.

Ikasgela txokoka antolatzea estrategia pedagogiko bat besterik ez da; ikaskuntza-jarduerak eta umeen beharrak bateratzen ditu. Era horretara, parte-hartzea bultzatu nahi dugu, baina, horretarako, antolakuntza aldatu beharko da, eta irakasleak ezin gainbegiratuko du ikasle guztien lana. Ikasle bakoitzak nahi duen jarduera egin dezake, baina bere gauzak beste ikaskideekin partekatu beharko ditu. Irakasleak ez badu esku hartzen, lana pobrea izango da, errepikatu egingo baita (Laguia, Vidal, 2001). Irakasleak ordenaren kontzeptua aldatu beharko du, taldearen barruan desordena dagoela emango baitu. Txoko libreak (horietan irakasleak ez du han egon behar), eta gidatuak (irakasleak nahitaez han egon behar du) txandakatuko dira. Txokoak dinamizatu egin behar dira, eta, interesa galdu dutela ikusten denean, aldatu egingo dira. Txokoak ohiko gela barruan sortuko dira, baina, hala ere, beharrezkoa da mugimenduzko gaitasunak lantzeko gela berezi bat, psikomotrizitate-gela, alegia. Baina ohiko gela barruan koltxoneta bat eta beste trenaren bat egon daiteke, umeak beste lanak egiten duen bitartean atsedena har dezan.

Oro har, ikaskuntzek globalizatuak izan behar dute, frogatuta baitago ikasleek hobeto ikas dezaketela ikasten dituzten ezagutzak globalizatzen badituzte. Adibide gisa eskola jarduera bat behatuko dugu: udaberrian, haurrak lore baten marrazkia egin dezake, hainbat lore sorta egin ditzake, loreak aztertu, zenbatu, multzoka jarri, lorea nola irekitzen den antzeztu eta gauza guzti horien arteko erlazioak ikusiz ikasiko du. Oro har, honako txoko hauek osa daitezke gela batean:

- Zentzumeneren txokoa
- Joko didaktikoen txokoa
- Plastikaren txokoa
- Irakurmenaren txokoa
- Hitzezko adierazpenaren txokoa
- Logikaren eta matematikaren txokoa
- Mugimenduaren txokoa (ohiko gela barruan)
- Jolas sinbolikoaren txokoa (ohiko gela barruan)
- Asmakizunen txokoa, behatze- eta esperimendatze-txokoa
- Uraren txokoa
- Margoen txokoa
- Mozorroen txokoa

Lan horren balioespina egiteko, honako alderdi hauei erreparatu behar diegu: nola jolasten duen, zer interes dituen, zein txoko duen gogokoen, gehien gustatzen zaizkion txokoen artean harremanik baden, nola erabiltzen duen materiala, bakarrik edo lagunekin jolasten



duen, nola portatzen den, jolasean ekimena agertzen duen, nolako harremanak dituen beste umeekin eta helduekin...

Metodologia horretan, eguneroko lanetan integratuta dago motrizitatea, ez da arrunta horrelako antolakuntza ikustea, eta agian, tentsio eta, modu handi batean, oldarkortasuna saihestuko litzateke horrelako planteamenduari jarraituz.



3.6. BIBLIOGRAFIA:

- AGUIRRE, J. (2005) La aventura del movimiento. El desarrollo psicomotor de 0 a 6 años. Iruña: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- ALZOLA, N.; OTAÑO, J. (1996) *El Porqué de la vida cotidiana*. Revista de Infancia nº 35, enero-febrero
- AZNAR, P.; MORTE, J. L.; SERRANO, R.; TORRALBA, J. (1998) *La Educación Física en la Educación Infantil de 3 a 6 años*. Bartzelona: INDE.
- BUENO, M. L.; MANCHON RUIZ, J.I.; MORAL, P. (1990) *Educación Infantil por el movimiento corporal. Identidad y autonomía personal*. Segundo ciclo 3- 6 años. Madril: Gymnos.
- CAIATI, M.; DELAC, S.; MULLER, A. (1986) *Juego Libre en el jardín de infancia*. Bartzelona: CEAC.
- CAMPS LLAURADÓ, C.; VISCARRO TOMAS, I.. (1999). Propuesta de Educación psicomotriz: objetivos y fases de la sesión. Aspectos metodológicos en psicomotricidad y el curriculum de Infantil. (517.-526. or) Actas del XVII Congreso de Escuelas Universitarias de Magisterio. Universidad de Huelva. Huelva. .
- Diseño Curricular Básico de la Comunidad Autónoma del País Vasco. (1992) *Haur Hezkuntza Etapa*. Bilbo: Eusko Jaurlaritzako Argitalpenak.
- GALLEGO ORTEGA, J.L. (1994) *Educación Infantil*. Sevilla: Aljibe.
- GODALL CASTELL, Teresa. (1999) *Horóscopo de programación de la Educación Física en la etapa de Educación Infantil*. Actas del XVII Congreso de Escuelas Universitarias de Magisterio. (476-486 or.) Huelva: Universidad de Huelva.
- GOLDSCHMIED, E.; JACKSON, S. ((2002) *La educación Infantil de 0 a 3 años*. Madrid: Morata.
- GOMEZ, R. H.(2003) El aprendizaje de las habilidades y esquemas motrices en el niño y el joven. Buenos Aires (Argentina): Stadium.
- LAGUÍA, M. J.; VIDAL, C. (2001-7ª edición) *Rincones de actividad en la escuela infantil. (0-6 años)*. Bartzelona: Grao.
- LAPIERRE, A. y AUCOUTURIER, B. (1977): *Simbología del movimiento*. Madril: Científico Médica,
- LARROY, C.; de la PUENTE, M. L. (2002-7. argitaraldia) *El niño desobediente. Estrategias para su control*. Madril: Pirámide.
- LLEIXA, T. (2000) *Haur hezkuntza 0-tik 6 urtera*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. Bilbo. [Itzulpenaren koordinatzailea. Xabier Etxaniz. Jatorrizko izenburua: Educación Infantil de 0 a 6 años. (1998) Bartzelona: Paidotribo.]
- Hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa Saila (1992). *Haur Hezkuntzako OCD-a*. Gasteiz:Eusko Jaurlaritzza.
- PINEDA, J.; PAREJA, J.; LANZAS, M.J. (1997) *El cuerpo: expresión y comunicación. Fichero de Juegos III*. Sevilla: Wanceulen.
- PINEDA, J.; PAREJA, J.; LANZAS, M.J. (1997) *El cuerpo: habilidades y destrezas. Fichero de Juegos II*. Sevilla: Wanceulen.
- PINEDA, J.; PAREJA, J.; LANZAS, M.J. (1997) *El cuerpo: imagen y percepción. Fichero de Juegos I*. Sevilla: Wanceulen.
- RUIZ PEREZ, L.M. (1996). *Aprendizaje motor e investigación cualitativa*. Sobre la necesidad de contemplar el punto de vista de la persona que aprende. Educación Física y práctica docente. (11.-22. or.) Madril: Consejo Superior de Deportes.
- RUIZ, F.J. (1994) *La Educación Física de Base en la enseñanza primaria: conceptos, procedimientos y actividades para su desarrollo*. Lleida: DM-PPU.
- SANCHEZ BAÑUELOS, F. (1992) *Bases para una Didáctica de la Educación Física y el Deporte*. Madril: Gymnos.
- ZABALZA, M.A. (2002) *Didáctica de la educación infantil*. Madril: Narcea.